



JOKABIDE KODEA

2018.01.15

GUREAK TALDEA



SARRERA



MISIÓN

GUREAK es un grupo empresarial vasco que genera y gestiona **oportunidades laborales estables** y convenientemente adaptadas a las personas con **discapacidad**, prioritariamente para personas con **discapacidad intelectual** en Gipuzkoa.

GUREAK es un grupo sólido y diversificado con presencia principalmente en los sectores de industria, servicios y marketing. Nuestros negocios y actividades son competitivos y persiguen las más altas cotas de rentabilidad.



NUESTRA PROPUESTA DE VALOR

Somos un grupo empresarial comprometido con la **inclusión socio-laboral** de personas con discapacidad. Generamos **oportunidades de trabajo estables** y **diseñamos itinerarios profesionales personalizados** mediante el desarrollo de **actividades competitivas**.

Competimos en mercados altamente profesionales y lo hacemos a contracorriente, priorizando el desarrollo laboral de las personas con más necesidades de apoyo. Así hemos consolidado un modelo empresarial de inclusión socio-laboral que hoy es referente en Europa.

QUÉ OFRECEMOS

Tenemos una propuesta de valor específica dirigida:

A EMPRESAS

SOMOS EL PARTNER A MEDIDA DE TU ORGANIZACIÓN



- ✓ ESPECIALIZACIÓN
- ✓ DIVERSIFICACIÓN
- ✓ SOLIDEZ
- ✓ CALIDAD
- ✓ INNOVACIÓN
- ✓ LOCAL E INTERNACIONAL

A LAS PERSONAS

UN MUNDO DE OPORTUNIDADES EN TU ITINERARIO PROFESIONAL



- ✓ TRABAJO
- ✓ ENTORNO PROFESIONAL
- ✓ ORIENTACIÓN
- ✓ FORMACIÓN
- ✓ ESTABILIDAD
- ✓ PROYECCIÓN DE FUTURO
- ✓ SERVICIOS SOCIALES

A LA SOCIEDAD

UN MODELO DE INCLUSIÓN REFERENTE EN EUROPA. UN ORGULLO PARA GIPUZKOA



- ✓ INCLUSIÓN SOCIO-LABORAL
- ✓ EMPLEABILIDAD
- ✓ ACTIVIDADES COMPETITIVAS
- ✓ SOSTENIBILIDAD
- ✓ REVERSIÓN
- ✓ MODELO REFERENTE



PERTSONAK

Pertsonak funtsezko elementuak dira, gure erakundearen helburuak betetzeko oinarria. Pertsona guztiek elkartanean jardungo dute emaitza komunak lortzeko, eta laneko giro lasaia, errespetuzkoa sortzeko konpromisoa hartzen dute. Lantegi barruan, jokabide serioa, ordenatua eta begirunezkoa izango dute.

Pertsona bakoitzak arretaz, erantzukizunez, errespetuz eta jarrera zintzoarekin beteko ditu bere lanak, eta geroko jarduerak edo berariazkoak egiteko balizko eskakizunen berri emango du, erakundeak egin beharreko ekimenak egin ahal izan ditzan.

Enpresak langile bakoitzaren gaitasunak eta ahalmenak sustatuko ditu eta horien garapena bultzatuko du eta, horretarako, prestakuntzako eta lanbidean eguneratzeko jarduerak antolatuta ere egin ditzake.

1.- Jazarpenari ez

Gureak taldean irmoki gaitzesten dugu barneko lan harremanetan jazarpeneko edo intolerantziako ekintzarik edo horien antzekorik izatea.

Jazarpeneko egoeren edo arrisku psikosozialen prebentziorako ezartzen diren unean uneko barne protokolo guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dute pertsonak.

2.- Aukera berdintasuna

Enpresaren helburuetako bat da lanerako giro egokia lortzea, desgaitasunaren, arrazaren, kulturaren, ideologiaren, sexuaren, fisikoaren, moralaren, erlijioaren eraginez edo bestelako arrazoiren batek eragindako diskriminaziorik gabe, betiere pertsona guztiak aukera berdintasuna eskaintzearen.

Pertsona guztiek elkartanean jardun behar izango dute helburu hori betetzeko.

3.- Substantzia alkoholdunak eta estupefazianteak; tabakoa

Debekatuta dago lantokian estupefazianteak erabiltzea eta substantzia alkoholdunen abusua egitea. Ezartzen diren unean uneko barne protokolo guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dute pertsonak.

4.- Langileak hautatzea, balioztatzea eta lanbide prestakuntza

Langileak hautatzean eta kudeatzean, enpresak merezimendu eta gaitasunen irizpideei jarraituko die eta bakoitzaren ahalmen eta potentzialtasunak ebaluatuko ditu, betiere konpainiak eskatzen dituen trebetasun eta lanbide profiei dagokienez.

Giza Baliabideen departamentua edo departamentu horren ordezkariak arduratuko dira kontratatutako pertsonen nortasunaren egiazotasuna egiaztatzeaz, eskura dituzten legezko baliabideekin, eta indarrean dagoen araudian aurreikusten den lan kontraturen baten bitartez kontratatuko dira langileak.

Ez da lan baldintza irregularrik onartuko, ezta Ogasun Publikoan aitortu gabeko dirutan ordaindutako lanik ere.

5.- Osasuna eta segurtasuna / Lantokietan osasuna eta segurtasuna zaintzea

Pertsona bakoitzak bere kideekiko erantzukizunez jokatu behar duenez, istripua izateko arriskuen prebentzioan moralki zorrotasun handienarekin jokatzera behartuta dago. Horretarako, lantokien, ekipoen eta prozesuen plangintza teknikoa egiten denean, laneko segurtasunaren eta higienaren arloan indarrean dauden arauak erabat errespetatuta planteatu behar da.

Pertsona bakoitzak ahalik eta arreta handiena jarri behar du bere lan jardunean, eta finkatutako prebentzioko eta segurtasuneko neurri guztiak zorrotz bete behar ditu, bai lankide nahiz kideekiko, bai bere buruarekiko, lanerako toki seguru, garbi eta osasungarria lortzearen.

6.- Enpresaren ekipo eta instalazioak erabiltzea

Enpresaren ondasunak eta, bereziki, instalazioak, ibilgailuak eta lantokietan kokatuta dauden ekipoak zerbitzuarekin lotutako arrazoiengatik erabiliko dira, indarreko araudiari jarraikiz betiere. Guztiz debekatuta dago horien erabilera pertsonala egitea, esanbidez baimenik izan ezean.

Enpresarenak diren baliabideak –hala nola, langileari eskaintzen zaizkion ekipo informatikoak, posta kontuak, komunikazio sareak– enpresaburuaren zaintzapeko eremuan geratzen dira; enpresaburuak egoki iritzitako neurriak hartu ahal izango ditu langileak bere eginbehar eta betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko, baina kontrol lan horretan langilearen duintasunari zor zaion begirunea agertu beharko dio.

Ezin izango dira, inolaz ere, enpresaren ondasunak eta, zehazki, baliabide informatikoak eta sareko baliabideak erabili legezko arauak, ordena publikoa edo ohitura onak urratzen dituzten helburuetarako, ez delituak egiteko edo eginarazteko, ezta, edonola ere, arrazagatiko gorrotoarekin lotutako, indarkeriaren apologiako edo giza eskubideen urraketa dakarten ekintzak egiteko ere.

7.- Datu pertsonalak babestea

Enpresak, jardunean ari delarik, enpresako kideen eta hirugarren pertsonen datu pertsonalak tratatuko ditu.

Era berean, enpresak enpresako kide guztiei eskatzen die jardunean eskuratzen dituzten datu pertsonalak unean uneko indarreko arauen arabera kudeatzeko konpromisoa har dezaten eta, bereziki, Datuak Babesteko Legearen arabera.

Hori lortzeko, datu pertsonalen tratamendua baimendutako langileek baino ezin izango dute egin, konpainiaren barne prozedurei eta araei jarraikiz, indarreko araudiaren eta, bereziki, Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera finkatu diren aldetik.

ENPRESA

Enpresak gizartearen, moralaren eta legearen arloetako betebeharrak erabat betez jarduten du, eta ondare ekonomiko, intelektual eta soziala aberasten laguntzea du xede, betiere betebeharrak horiei jarraikiz.

1.- Ingurumena zaintzea

Enpresaren lehentasunezko helburuak dira ingurumena zaintzea eta natura baliabideak babestea.

Enpresako kide bakoitzak, dagozkion eginkizunak betetzen eta jardunean ari denean, arlo horretan emaitza eredugarriak lortzen lagundu behar du.

2.- Jabetza intelektual eta produktu berriak garatzea

Enpresaren jabetza intelektual eta industrial zaindua funtsezkoa da enpresaren lehiarako abantailari eusteko; jabetza intelektual eta industrial horren barruan sartzen dira patenteak, sekretu industrialak, enpresaren sekretuak, markak, bereizgarriak, ezagutza tekniko eta zientifikoak, know-how delakoa eta enpresako jardunean eskuratutako gaitasunak. Langileek enpresaren eskubideak zehaztu, babestu, zaindu eta defendatu behar dituzte jabetza intelektualaren arlo guztietan eta komertzialki garrantzitsuak diren arloetan, eta eskubide horiek arduraz baliatu beharko dituzte.

Enpresaren jabetza intelektualeko/industrialeko eskubideak babesteaz gain, merkatuko gainerako eragileen jabetza intelektualeko/industrialeko eskubideak ere errespetatu beharko dituzte.

Inork ezin izango du enpresaren edo hirugarrenen jabetza industrial erregistratu edo hartaz baliatu (adibidez: marka komertzialak), ez akordiorik betearazi, ezta jabetza hori modu autonomoan baliatu ere, baldin eta ez badu lortzen enpresan gai horietan eskudunak diren unitate zentralen baimenik, esanbidez eta idazki bidez.

Pertsonak lanean erabiltzen duten material asko copyright eskubideei buruzko legeen babespean egon daiteke. Eskubideen jabearen baimenik izan gabe copyright-ari atxikitako materiala erreproduzitzea, banatzea edo aldatzea –hor sartzen da argazkiak eta irudi grafiko edo diseinuak baimenik gabe erabiltzea– legez kontrakoa da eta Kode honetan debekatuta dago, "erabilera zuzena" babesten duten salbuespenak salbuespen.

Enpresako ezein kidek ezin izango du enpresako dokumentuen grabazioak edo erreproduzioak egin –ikus-entzunezkoa nahiz elektronikoa–, ez paperean, ez argazki bidez; salbuespen izango dira eragiketa horiek esleitutako zereginen ohiko jardunaren barruan sartzen diren kasuak.

3.- Enpresari buruzko informazioa

Enpresako kide batek enpresari buruzko isilpeko informazioa jasotzen edo prozesatzen badu lan jardunean, sozietatearekiko harremanetan, kide horrek ezin izango du informazio hori osorik edo partzialki erabili, ez hirugarrenei jakinarazi, ezta zabaldu ere, erakundearen helburuekin bat ez datozen xedeetarako.

Isilpeko informazioetat hartzen dira enpresaren ondasun eta antolamendurekin lotura duten datu, ezagutza, akta, dokumentu, txosten edo bestelako materialak, eragiketa komertzial eta finantzarioak, baita enpresa eraginpean hartzen duten prozedura judizialak eta administrazio prozedurak ere.

Konfidentziasunaren betebeharrak indarrean jarraituko du enpresarekiko lotura eten ostean ere, betiere indarreko arauei jarraikiz.

Informazio konfidentziala duen material oro baimendu gabeko pertsonen eskuetatik kanpo gorde behar da.

4 Zerbitzu/hornidura arduratsua emateko politika

Enpresak indarrean daude lege xedapenak erabat betez jarduten du eta, zentzu horretan, zerbitzu/hornidura arduratsua emateko politikaren lana xedapen horien mugen barruan gauzatzen du.

Enpresako ezein kidek ezin izango du indarreko araudia urratzen duen zerbitzurik eman eta, nolana ere, bezero/hornitzaileek eskatutakoari atxikiko zaio.

Enpresako ezein kidek ez dio zerbitzurik emango bezero bati, baldin eta bezeroak esanbidez adierazi badu indarreko arauen bat urratu duela eskatu duen zerbitzuari dagokionez.

Enpresako ezein kidek ez dio zerbitzurik emango bezero bati, bezero horren asmoa bada zerbitzu hori indarreko arauen bat urratzeko bidetzat erabiltzea eta asmo hori esanbidez adierazi badu.

5.- Jarduera bateragarriak eta bateraezinak

Enpresako kideek albo jarduerak egin ahal izango dituzte, betiere kide horiek erakundearen alde egiten dituzten lan jardueren garapenari kalterik egiten ez badiote.

Enpresako kideek, nolana ere, ezin izango dituzte albo jarduerak egin (ordainpekoak ez direnak ere ez), jarduera horiek konpainiarekin hitzartutako berariazko betebeharrekin bateraezinak baldin badira.

6.- Informazio fidagarria

Pertsonak egiten dituzten jardueri buruzko egiazko informazioa emango dute, dela euskari fisikoan, dela telematikoa, baita euren buruari edo hirugarrenei buruz ere.

Enpresako ezein kidek ezin izango du jarduketarik egin bere aktiboak hartzekodunei ezkatatzea lortzeko.

7.- Osotasun finantzarioa, Kontabilitatea, Zerga erantzukizuna

Enpresak ekonomiaren eta finantzen kudeaketa egokia egingo du, eta erakundearen baliabide ekonomikoak planifikatzeko, antolatzeke, kontrolatzeko eta ebaluatzeke funtsezko prozesuak zehaztu beharko ditu.

Erakundearen Finantza departamentuak, konpainiaren administrazio organoarekin bat etorrita, gardentasunaren, araudia betetzearen eta jasangarritasun ekonomikoaren printzipioak beteko ditu, baita ekonomiaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren irizpideak ere; horrek zera esan nahi du, legeak behar bezala beteko direla eta, bereziki, kontabilitateari eta zergei buruzko arauak, eta informazioa edo laguntza eskatzen duten agintariekin elkarlanean jardungo dela, egoki eta behar bezala.

MERKATUA-SOZIETATEA

1.- BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak enpresaren enpresa ondarearen barruan sartzen dira, eta enpresa bezeroekin harremanetan egongo da; harreman horiek Kode honetako arauak eta funtsezko printzipioak beteko dituzte, betiere haien erreferentziako ordenamendu juridikoa, soziala, ekonomikoa eta kulturakoa aintzat hartuta.

Bezeroekiko harremanetan, enpresako kide eta langile guzti-guztiek legezko tasun eta moraltasun irizpideei jarraitu behar diete, eta profesionaltasunaren eta ohorearen printzipioak bete beharko dituzte. Enpresako kideek zintotasunez, leialtasunez eta gardentasunez jardungo dute bezeroen aurrean; halakorik izanez gero, prozedurak bete beharko dituzte eta, nolnahi ere, informazioa –berezkoa nahiz besterena– egoki eta legearen arabera erabili.

Enpresaren zerbitzuen komertzializazioak bidezkoa, zorrotza eta koherentea izan behar du indarreko legeei dagokienez. Lehiakideen zerbitzuekin konparaziorik eginez gero, haztatuak, zorrotzak eta egiaztatzeko modukoak izan beharko dute.

Bezeroen datuak egiaztatu egin behar dira dagozkien legezko baliabideak –NANA, pasaporteak– ikusita, egiazkoak direla egiaztatzeko eta bezeroen zerrendetan ez dagoen nortasunik edo bikoiztasunik sortzea saihesteko.

2.- HORNITZAILEEKIKO HARREMANAK

Enpresa hornitzaileekin harremanetan egongo da; harreman horiek Kode honetako arauak eta funtsezko printzipioak beteko dituzte, betiere haien erreferentziako ordenamendu juridikoa, soziala, ekonomikoa eta kulturakoa aintzat hartuta. Era berean, enpresak zuzentasunez eta inpartzialki hautatuko ditu hornitzaileak.

Enpresako kideek enpresako zuzentzarauetan xedatutako irizpideei jarraitu behar diete hornitzaileak hautatzeko eta adjudikatzeko garaian, baita gardentasun publikoarekin lotuta aplikatu beharreko prozedurei ere, betiere indarreko arauen arabera; salbuespen izango dira *intuitu personae* mandatuak, izan ere, kasuan kasu balioetsiko baitira konpainiari ondasun edo zerbitzuak emateko edo eskaintzeko, hornitzeko edo kontratatzeko adjudikazioetan.

Edonola ere, dagokion kontrol organoari jakinarazi behar zaio interes gatazka eragin lezakeen interes edo harreman pertsonal ororen berri izanez gero, eta esanbidez debekatuta dago zerbitzu bat hornitzaile jakin bati –beste baten kaltetan– ematearen alde egitea, modu erabakigarrian, edo hornitzaile jakin batek zerbitzua lor dezan eragozte.

Era berean, lege xedapenak bete ditzaten eskatu behar zaie hornitzaileei, dagokien ekonomia jardueraren arloan, enpresari ematen dizkieten zerbitzuei dagokienez eta, bereziki, pertsona juridikoen erantzukizun penalarekin lotutako delituei dagokienez.

3.- GOBERNU eta ERAKUNDE PUBLIKOEN DAGOKIENEZ

Erakunde publikoekiko harremanak enpresatik horretarako baimena duten kideen eskumen izango dira, edo bestela, baimendun horiek izendatutako ordezkioa, Kode honetako arauen arabera, Sozietatearen estatutuaren arabera eta lege berezien arabera, eta gardentasunaren eta efizientziaren printzipioei, bereziki, erreparatuta.

Nolnahi ere, Administrazio Publikoarekin (tokikoa, autonomia erkidegokoa, nazioa edo nazioartekoa izan) 100.000 eurotik gorako **kontratu** bat sinatu ahal izateko, alde aurretik derrigorrezkoa izango da betetzearen berri ematea ofizialari, une bakoitzean ezartzen den prozeduraren arabera".

Era berean, enpresako kideek Administrazio Publikoarekin dituzten harremanetan, baita hirugarren pertsonen bitartez ere, honako **printzipio** hauek bete beharko dira:

- i. Legea eta jardunbide komertzial egokiak erabat betez jardungo da beti; esanbidez debekatzen da honelako jokabideak izatea: Sozietateari mesede egiteagatik edo Sozietatearen interesa lortzeagatik, delitutzat jo daitezkeen jokabideei jarraikiz jardutea.
- ii. Administrazio Publikoarekin negoziatzen, eskaerak bideratzen edo harremanetan ari garen bitartean, langileek eta Sozietatearen kontura jarduten duten gainerako beharginek ez dute erabakietan bidegabeki eragiteko ahaleginik egingo, edo funtzionarioei (Administrazio Publikoaren izenean negoziatzen edo erabakiak hartzen dituztenak ere barnean hartuta), zuzendariei edo Administrazio Publikoko langileei nahiz haien ahaide, ezkontide edo gertukoei ez diete eginarazi behar beren lanbide betebeharren kontrako ekintzarik, nahiz eta horrek Sozietateari onuraren bat eragin.

Kasuan kasu, **zerga arloan** indarrean dauden xedapenak bete behar dira, eta dagokion aholkularitza eskatu beharko da, egindako jarduna ez dadin izan Erakundeak indarreko zergen aitortpen hutsa egitea; besteak beste, sozietate forma aldatzea izan daiteke jarduketa bat, eta horren ondorioz zerga ordainketan ere aldaketak izan daitezke. Zehazki, etekinaren xedeari buruzko Taldearen estrategia aldatzea dakarren erabaki orori dagokionez, taldeko sozietateen arteko transferentzia prezio esaten zaien horiei buruzko erabakiak hartzen direnean –sozietateek elkarri ematen dizkioten zerbitzuak–, laguntza finantzarioari dagokionez edo zergak ordaintzearekin lotutako zalantzak eragiten dituen beste edozein gaiari dagokionez, kuotagatiko balizko zerga delituaren eremuan sartzen denean.

Erakunde politikoekiko eta sindikatuekiko harremanei dagokionez, enpresatik horretarako baimena duten kideen ardura izango dira, eta debekatuta dago enpresaren izenean edo enpresaren kontura dohaintzak edo ekarpenak egitea alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautulesen elkarre bati, bere kabuz edo bitarteko pertsona batekin, zenbatekoa edozein izanik ere.

4.- MERKATUari dagokionez

1.1.- **Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurka**: Jardunean ari direla, erakundeko langile, arduradun eta kideek debekatua dute dohaintzak (opariak), etekinak edo baimendu gabeko beste onura batzuk –dirua, ondasunak edo edozein motatako zerbitzuak– eskaintzea edo ematea hirugarren pertsonari, baita hirugarren pertsonengandik horrelakorik onartzea edo hartzea ere, zuzenean edo zeharka –ezta ospakizuna izanagatik ere–, ezta erakundearen mesedetan edo interesen alde ere; salbuespen izango dira balio txikiko dohaintzak, jardunbide arrunten barruan sartzen direnak, kortesia komertzialeko ohiko harremanetan sar litezkeenak eta, nolana ere, beste alderdiak edo kanpoko pertsona inpartzial batek ez dezala pentsa bidegabeko abantailak lortzea edo ematea dutenik xede, edo bestela, ez dezatela legez kontrako edo immoralek izatearen itxurarik eman.

Enpresako kide batek orain arte azaldutakoarekin bat ez datozen dohaintzak edo dohaintzen eskaintzak jasotzen baditu, horren berri eman beharko dio berehala Kontrol Organoari; hartara, hartu beharreko neurriak hartu ahal izango dira eta, gero, batzorde horrek dagokion azken komunikatua egin ahal izango du. Nolanahi ere, enpresako kideak debekatua du edozein motatako dohaintzak –nahiz eta balio txikikoak izan– eskaini edo eman diezazkioten eskatzea, baita dohaintzak onartu edo jaso daitezkeen eskatzea ere.

Jardunean ari dela, langile batek hirugarren pertsonekin kontratuak hitzartzen baditu, kontratu horietan Kode hau urratuko duten dohaintzak eskatzea edo aurreikustea saihestu beharko du.

1.2.- **Lehia**: Enpresako kide bakoitzak lehia desleialaren arloko arauak eta antitrust arauak bete beharko ditu. Langileak arduradunari jakinarazteko betebeharra dute eta arduradunek kontrol organoari jakinaraztekoa, baldin eta ohartzen badira merkatuan lehia librearen joko eragozteko helburua edo ondorioa duten jokabideak gertatzen ari direla, dela prezioak edo beste baldintza batzuk adostuta, dela merkaturua banatzea dakarten bestelako metodoengatik.

Enpresaren zerbitzu eta produktuen salmenta gertatzen bada, enpresaren merezimenduei eta eskaintzen dituen abantailari esker gertatu behar da, ez beste arrazoiren bati esker. Jokabide Kode honek ez du ahalbidetzen lehiakideen izena gezurren bidez belzte, ezta lehiakideen

produktu eta zerbitzuak ere. Sozietateak onartzen du lehia funtsezko elementua dela herrialdean gizartearen eta ekonomiaren garapena eta aurrerabidea lortzeko.

Enpresa askatasunerako baldintza orokorrak errespetatu daitezkeen zainduko da, eta operadore ekonomikoek merkatuan eta lehian sartzeko aukera emango zaie, aukera berdintasunean; bezeroak babesten dira eta, prezioei eusteaz gain, zerbitzuen kalitatea hobetzea ere ahalbidetuko da, lehiaren joko librearen ondorioz.

Ikuskaritza lana egiten ari direlarik, lehia librean zaintzen duten agintariek eta erregulazio organoek informazioa eskatuz gero, Sozietateak ez du informazio hori ukatuko, ez ezkutatuko, ezta informazioaren transmisioa atzeratuko ere, eta instrukzioko prozeduren garapenean modu aktiboan lagunduko du.

5.- INFORMAZIO organoekiko harremanak

Nazioko nahiz atzerriko prentsarekin, telebistarekin eta, oro har, masen komunikabideekin ditugun harremanez arduratuko dira enpresako Komunikazio departamentutik horretarako baimena duten pertsonak, edo bestela, haiek izendatutako ordezkariak.

Kanpo komunikazioko jardun guztiak alde aurretik baimendu behar dira, enpresaren unean uneko indarreko prozedurei jarraikiz. Zehazki, babesle izateak ez dio lehiarako abantaila justifikaezinik eman behar enpresari, edo ez dio helburuak legez kontra betearazi behar.

AZKEN XEDAPENAK

Erakundeko kide guztiak kode honetan, kode honetako arauetan eta arau horiek garatzeko prozeduretan xedatutakoari atxikitzen zaizkio.

Arauek ez badira betetzen, dagokion zehapen prozedura abiaraz daiteke.

Kontrol organoak zainduko du kode honetako, arauetako eta garapen prozeduretako xedapenak betetzen direla. Erakundeko kide guztiek kontrol organoaren jarraibideak bete behar dituzte, eta goian aipatutako arauen hein berean.

Lankidetzaren hitzarmen egonkorra edo baterako jardura eginez gero, horren ondoriozko sozietateak edo merkataritza sozietateak ere Kode hori bete beharko du, fusioaren, erosketaren, xurgatzearen edo horien antzeko mekanismoren baten kasuan.

Gureakeko Administrazio Kontseiluak onartu eta baliozkotu du kode hau, 2017ko urriaren 2an.

